

azpeitian zer

127. zenbakia

udal aldizkaria

2010eko apirila



ez!

oinarrizko
arauak aplikatzen

*Udalak hondakinen, zaraten
eta txakurren ordenantzak
zorrotz betearaziko ditu*

700 urte
azpeitia

zer?



2 Telefono interesgarriak

12 Erreportajea

3 Herritarren eskaerei erantzunez 14 Motxean

4 Azpeitia ezagutzen lehiaketa 14 700. urteurrena

9 Oporrak Bakean programa 15 Udal erabakiak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Pentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

Paper birziklatuan egina



telefono interesgarriak

Azpeitiko Udala

Zentralita	943 15 72 00	Udal Euskaltea	943 81 19 47	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitletza	943 15 71 89	Ingurugiro Etxea		1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Fundazioa	943 15 17 13	2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Kontsumitzaileen		DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	N.A.N. Bulegoa	943 15 71 60	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48		
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Eguneko Zentroa	943 15 74 96			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Liburutegia	943 15 71 95	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Suhiltzaileak	112	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Igerilekua	943 81 41 21	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Polikiroldegia	943 81 30 69	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
Euskara Patronatua	943 81 45 18	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

Herritarren eskaerei erantzunez...

Udalak jarritako buzoietan eta azpeitia.net webgunean jasotako iradokizun, proposamen, eta kexei apurka-apurka erantzuten ari da Azpeitiko Udala. Hona hemen horren adibide batzuk.

Irakokizuna

Azpeitiko zaborrontziak zergatik ez dira Azkoitiak, Zarauzkoa edota Donostiakoak bezala hankarekin irekitzen direnak?

Nerea Larrañaga

Erantzuna

Zabor bilketa sistema desberdina dugu-lako Azpeitian, hala ere, orain iritsi dira berriak eta nahiz eta berdin-berdinak ez izan, laster jarriko ditugu.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Kalera datorren jende askok Juan XXIII auzunean aparkatzen du bere kotxea. Eta festetan, hileta egunetan eta asteburuetan kotxe asko pilatzen da auzunean. Kontua da, Frantziskanetako zelaia eta auzunea banatzen duten paretan ondoko aparkalekuek marrak margotu gabe dituztela, eta askotan, aparkalekuak ondo aprobetxatu gabe egoten direla. Hiru kotxe kabitzen diren lekuan, igual 2 daude aparkatuta. Nire eskaera, beraz, Juan XXIII auzunean (Frantziskanak aldera) aparkalekuetan marrak margotzea da.

Leire Otaegi

Erantzuna

Udalaren haserako asmoa inguru horretako asfalto beritzea zen, baina egungo egoera ikusirik, atzeratu egin da, baina margotuko dira.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Zer dela eta jarri dituzue berriro Eliz kale eta Erdi kale arteko pasaguneko ateak? Hasiere batean larunbat gauetan itxita egoten zen, gero aurreko Udalak "probatzeko" irekitzea pentsatu zuen. Etxepekoek eskatu genuen gauza bakarra ateak kentzea izan zen, izugarrizko zarata ateratzen zutelako larunbat gauero kolpatu eta kolpetik itxean. Irekita mantendu behar badituzue, zertarako dira ateak? Erantzun mesedez.

Ander Odriozola

Erantzuna

23.00etatik 07.00etara bitartean ateak itxita egoten dira eta irekita daudenerako, berriez, dagoeneko jarri diren giltzarraoekin lotzen dira.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Larunbat goizetan izaten dut denbora nire seme-alabekin pistinara joateko. 4 eta 2 urte dituzte, eta noski, pistina txikian ibili behar dute. Larunbat goizero ume txikienezako ikastaroak egoten dira pistina txikian eta bertako monitorak ezin dugula bertan ibili esaten digu. Beraz, zer egin behar dugu larunbat goizetan gure umeekin igerilekura joatea nahi badugu? Ikastaroa ordaindu? Hau al da igerileku municipal batek eman beharko lukeen zerbitzua? Nire ustez ez. Mesedez utzi igerileku egunetan igerileku municipalen disfrutatzen.

Aritz Orbegozo

Erantzuna

Eskaera asko jasotzen dira haur txikiengatik igerileku ikastaroak antolatzeko eta monitoreak lekua behar izaten du arketak egiteko. Hala ere, ikastaro hauek 10.00etatik 11.30era izaten dira eta ordutegi horretatik kanpora, herritarrek libre izaten dute igerileku txikia.

Udal Kirol Patronatua.

Irakokizuna

Ez al da Udala ostalaritzako legeak betetzeko arduraduna? Amnistiako "tabernagatik" diot, ez dute zarataren aurkako babesik, ez ate bikoitzik, ez horma sendorik... Nolatan baimendu dezake horrelakorik Udalak? Zer gertatu behar du bizilagunen eskubideak kontutan hartzeko? Salaketa bat jarri arte egon behar al du Udalak? Ez dut uste horrela Alde Zaharra biziberrituko denik, inork ez baitu nahi egoera honetan bizi. Mesedez, erantzun gauzak okerrera egin aurretik.

Ander Odriozola

Erantzuna

Lokal horrek ez du normalki taberna bezala funtzionatzen, herriko festa nagusienetan bakarrik zabaltzen da, eta, horrelako egunetan, ordutegi aldetik gehiago baimentzen da beti ere. Taberna normala izango balitz, araudia bete beharko luke, baina festetan bakarrik irekitzean, beste irizpide batzuk izaten dira.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Irakokizuna

Euskal Herria auzunean, haurtzaindegia dagoen etxeen eta alboko etxe blokeen arteko tartean, etxepetako gas butanoak dauden horretan, orain arte autoak aparkatzen genituen. Orain ordea, marra horia margotu dute bertan aparkatu ez dadin. Erabaki horrekin ez gaude inolaz ere ados. Izan ere, guztiok ordaintzen ditugu herri honetan zergak eta zerga horien artean zaborrena dago. Beraz, gure herriko barranderoek garbitu dezatela marra horia margotu duten zati hori ere, inoiz ez baita makina tarte horretatik pasatzen. Eta noizbait, lurra hautsita agertzen bada, Udalak ordainduko al du bertako konponketa?

Euskal Herria auzoko bizilaguna

Erantzuna

Bertako auzo-lagunek eskatuta margotu zen marra hori, butanoa kargatzeko arazoak izaten zituztelako.

lñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Sartu www.azpeitia.net udal webgunean

- Tramiteak eta ordainketak etxetik.
- Udal albisteak uneoro ezagutzeko.
- Kexa, iritzi eta iradokizunak plazaratzeko.
- Plenoetako aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzeko.
- Hemiaren inguruko informazio erabilgarria eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.
- Sexologia zerbitzua on-line: hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezka erantzungo ditu.
- Udal liburutegia: bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu webguneak.



1. Parte hartzen dutenen adina kontutan izanik, bi mailatan banatzen da lehiaketa, hamalau urte 2010. urtean beteko dituzten bitartekoak (GAZTEAK) batetik eta adin horretatik gorakoek bestetik (HELDUAK).
2. Maila bateko eta besteko orriak banatuko dira 2010ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, eta maiatzaren hasieran, bakoitzean 20 galdera egiten direla, eta bakoitzarentzat lau erantzun ematen direla.
3. Erantzun horietako bat bakarra da zuzena eta bera aukeratu ondoren, guruzetxo bat (X) jarri beharko da egokitzen zaion laukitxoan.
4. Galdera guztiei edo ahalik eta gehienei erantzun ondoren eta maiatzaren 15a baino lehen, Udal Liburutegian (Enparan dorretxean) edo igerilekuan egongo diren gutunontzietan sartuko da galdera orria.
5. Derrigorrezkoa egiten da, gutunontzian sartu aurrez, galdera orria guztiz betetzea, hau da, izen abizenak, adina, helbidea eta partaidea bizi den herriaren izena idaztea.
6. Partaide bakoitzak, galdera orri bat bakarra aurkez dezake aipaturiko hil bakoitzean.
7. Bost galdera sorta horiek osatuko dute AZPEITIA EZAGUTZEN 2010 LEHIAKETA, eta irabazletzat erantzun egoki gehienematen dituztenak hartuko dira.

8. Sariak, honako hauek izango dira aipaturiko bi maila horietan:

Helduen maila

1. Saria: Bi lagunentzat astebukaera bat Iparraldeko landa-turismo etxe batetan.
2. Saria: Bi lagunentzat astebukaera Hegoaldeko landa-turismo etxe batetan.
3. Saria: Bi lagunentzat afaria Larrañaga jatetxean.

Gazteen maila

1. Saria: Ordenagailu eramangarria.
2. Saria: Informatikako denda batean gastatzeko txartel bat
3. Saria: Kirol-denda batean gastatzeko txartel bat

9. Berdinketarik balitz, zozketa baten bidez erabakiko litezke aipaturiko sariak.

10. Udalak herriko jai nagusietan banatuko ditu sariak eta aurretik galdera guztien erantzun zuzenak ezagutaraziko dira.

OHARRA:

Lehiaketako orri hauen fotokopiak onartuko dira.



HELDUEN MAILA

1 Era askotako musika tresnak jo eta konpontzen zituen Sebastian Errazti *Xaxurrek*, baina bat joaz eman zen ezagutzera zenbait auzo eta herrietan. Zer?

- Txistua
- Bibolina
- Esku soinua
- Dultzaina

2 *Kalonjea, Doktore kalonjea, Apostoliko Protonotarioa eta Apezpikua* ez ezik, beste titulu bat ere izan zuen Martin de Zurbano azpeitiarrak. Zein?

- Kardinala
- Inkisidore Nagusia
- Artzapezpikua
- Aita Santuaren Zerbitzaria

3 *Azpeitiko Lehoia eta Azpeitiko Tigrea* deitu zitzaion behin baino gehiagotan azpeitiar erremontista txapeldun bati. Nor zen bera?

- Felix Berolegi
- Inazio Bereziartua
- Julian Arzamendi
- Benito Uzin

4 Aurkitu izan diren datuak diotenez, Azpeitiko parroikiko Eguberrietako *Naximentua* 1894an jarri zen lehen aldiz. Nor?

- Felix Epelde
- Frantzisko de Larrañaga
- Antonio de Lekunberri
- Joxe Inazio de Aldalur

5 *Euskalerrriaren Alde* aldizkarian, lan ugari argitaratu zituen Karmelo Etxegarai azpeitiarrak, bakarren bat lau ezizen hauetakoren bat erabiliz. Zein?

- Lope de Txalintxo
- Iñigo de Izarraitz
- Joxe de Gaskue
- Ojer de Hasparren

6 Inazio de Ibero obra maisu ospetsua Azpeitiko Barrenola etxean jaio zen 1694ko abenduaren 5ean eta ekainaren 30ean hil zen. Zein urtetan?

- 1754an
- 1760an
- 1766an
- 1794an

7 *Casa-torre Emparan*, Azpeitia liburuxkan, bi idazle azpeitiarrek hartu zuten parte. Bat Imanol Elias, eta bestea?

- Jose Inazio Alberdi
- Jose de Artetxe
- Leopoldo Etxeberria
- Juan Inazio Aranburu

8 1901eko irailaren 29an ospatu ziren Euskal Jaietan, azpeitiar musikari batek sortutako Salbea abestu zen parroikian. Nor sortua?

- Inazio Fernandez Eleizgarai
- Gaspar Besga
- Toribio Eleizgarai
- Jose Inazio Aranburu

9 Herriak, Anastasio eta Juan Bautista Belokirekin egindako tratuaren ondoren iritsi zen elektrika indarra Azpeitiko kaleetara. Baina, zein urtetan?

- 1885ean
- 1890ean
- 1895ean
- 1900ean

10 Izarraitz auzoko *Takolo* baserriak, beste deitura bat ere badu. Zein?

- Artxondo
- Miraflores
- Sakaletxe
- Goikolea

11 Nor egina da Azpeitiko parroikiko aldaire nagusian dagoen Sebastian donearen irudia?

- Julio Beobide
- Juan de Antxieta
- Jose Antonio Rodriguez
- Fernando Olaizola



12 1886an Urnietan ospatu ziren Euskal Jaietan, Karmelo Exegaraik ontzako urrea eta makila lortu zituen olerki batekin. Bere izenburua?

- Larramendi-ri. Ikuskera bat
- Menditar baten kantua
- Zertarako?
- Arrigorriaga

13 Juan de Antxieta, apaiz eta musikariak, seme bat zuela aitortu zuen 1522an testamentua egitean. Norekin izandakoa?

- Maria Joaniz de Aizpuru
- Josefa de Zelairan
- Juana de Orbe Astarbe
- María Martínez de Ezkerretegi

14 Zein urtetan irabazi zuen Andoni Aranagak estatuko Ziklo-Kros Txapelketan, brontzeko domina?

- 1995ean
- 1996an
- 1997an
- 1998an

15 Joxe Luis Franzena musikari azpeitiarrak sortutako *Soreasuko Sebastian* doinua estreinatu zen danborradan. Zein urtetan?

- 1980an
- 1982an
- 1986an
- 1996an

16 *La emigración y la fe* liburua azpeitiar batek argitaratu zuen Argentinan 1931. urtean. Nork?

- Jose de Artetxe
- Iñaki de Azpiazu
- Felix Ortiz San Pelayo
- Luis de Gaztañaga

17 *Damaso Azkue* lantegia eta orain auzoa den lurraldeak izen berezi bat zuen lehen. Zein?

- Zumitz-soro
- Lamio-soro
- Txanplandin-soro
- Enparan-soro

18 Fernando Morillo azpeitiar idazleak Euskadiko Literatur Saria lortu zuen 2003an, haur eta gazte literaturari dagokionez. Zer lanekin?

- Izar malkoak
- Marrazkiak
- Bokadilo baten truke
- Hamahiru ate

19 Zein urtetan kaleratu ziren lehen aldiz Azpeitian, herriko gauzainak?

- 1866an
- 1870ean
- 1875ean
- 1882an

20 Azpeitiko Zine Klubak, berak sortutako filma bat estreinatu zuen 1987ko apirilaren 24an. Esango al diguzu bere izenburua?

- Equinoxe
- Kokles
- Mateo Txistu
- Kutsadura

Partaidearen datuak:

Izena: _____ Abizenak: _____

Helbidea: _____ Herria: _____ Urteak: _____

Telefono zb.: _____

Oharra: Derrigorrezkoa da maiatzaren 15a baino lehen Udal Liburutegian (Enparan dorretxean) edo igerilekuan dauden gutunontzietan uztea lehiaketako orri hau.





GAZTEEN MAILA

1 Urrestillako Sokatira Elkarteko kidea eta mendizalea hil zen *Monte Perdido* igotzen ari zela 1996an. Nor?

- Andres Iturzaeta
- Joxe Luis Badiola
- Aitor Lapeira
- Joxe Orbegozo

2 *Cho Oyu* (8.201 metro) mendiko gailurra zapaldu zuten Josu Bereziartua eta Amaia Aranzabalek. Noiz?

- 1989an
- 1990ean
- 1992an
- 1994an

3 Noren omenezko karroza kaleratu zen 1975eko Haurren Danborradan?

- Azpeitiko Bertsolariak
- Manuel Ferrer
- Joxe Mari Gurrutxaga
- Julian Barrenetxea

4 Non igaro zituela esaten da Loiolako Inazioek 1535. urtean hiru hilabete, Paristik Azpeitira itzultzean?

- Loiolako jauregian
- Egibar etxean
- Madalena ospitalean
- Buztinzuriko erruki etxean

5 Bartzelonan 2004an, 20 urtez azpiko eskalatzailer mailan txapelidun izan zen azpeitiar bat. Nor?

- Iñigo Korta
- Gorka Karapeto
- Iñaki Altuna
- Roberto Rodriguez

6 Urrestillako parrokiako organoa 1950ean inauguratu zen. Herritar batek donatu zuen. Nork?

- Inazio Kerejeta
- Maria de Antxieta
- Joxe Luis Iturzaeta
- Manuel Aizpuru

7 Bi emakume izan ziren Buztinzuriko ospitalea sortu zutenak 1508an. Bat Maria de Lasao zen eta bestea?

- Maria Miguelez de Arrizuriaga
- Josefa Iñiguez de Altuna
- Joana Perez de Lete
- Madalena Garcia de Loiola

8 1956tik 1961ra bitartean, gutxi gorabehera, aldizkari parrokiar bat argitaratu zen Azpeitian. Esango al diguzu bere deiturra?

- Azpeitia
- Iraurgi
- Olatz
- Soreasu

9 Non dago kokatuta sokamuturrari buruzko eskultura?

- Zelai-luzean
- Landeta auzoan
- Harzubian
- Done Jakue kalean (Santiago kalea)

10 Esango al diguzu Azpeitiko parrokia nagusiaren izena?

- Soreasuko San Inazio
- Soreasuko San Sebastian
- Soreasu
- Soreasuko San Pedro

11 Non egiten du bat Sistiaga errekek, Urola ibaiarekin?

- Azoka plaza inguruan
- Loiola inguruan
- Eskuzta inguruan
- Lasao inguruan

12 Non dago kokatuta gaur egun Udal Liburutegia?

- Udaletxean
- Antxieta etxean
- Enparan dorretxean
- Basazabal etxean

13 Santutxo auzuneak, oraindik santutxo bat zutik duelako du bere izena. Baina beste toki batetik aldatu zuten orain den tokira bigarren karlista gerratean. Nondik?

- Buztinzuri plazatik
- Arana auzotik
- Iturritxikitik
- Loiolako bide zaharretik

14 Nondik norako ohiko ibilbidea egiten zuen orain urte gutxi arte Urola trenak?

- Zumarraga-Zumaia
- Azpeitia-Donostia
- Azkoitia-Getaria
- Azpeitia-Zumaia

15 Gaur egun Goikokalea deitzen den kaleak, beste izen bat zuen aurrez. Zer?

- Buztinzuri
- Kale-txikia
- Santo Domingo
- Frontoi kalea

16 Legenda batek dioenez, Azpeitiko zubi bat sorginak eginikoa da gau batean. Zein zubi?

- Harzubikoa
- Enparangoa
- Loilako txikia
- Amukoa

17 Gaur egun Udala dagoen tokian, komentu bat ezagutu zen lehen. Zer ordenatakoa?

- Domingotarra
- Frantziskotarra
- Jesusen Lagundikoa
- Agustindarra

18 Esango al diguzu 1562an hil zen urrestildar baten izena, Cordobako apezpikua izatera iritsi ondoren?

- Migel de Egorza
- Martin Garcia de Ibarluze
- Gregorio de Makibar
- Diego de Alzega

19 Noiz hasi zen lanean Iraurgi Ikastetxea?

- 1972an
- 1975ean
- 1979an
- 1983an

20 Noiz inauguratu zen Azpeitiko Trenaren Museoa?

- 1989an
- 1990ean
- 1992an
- 1994an

Partaidearen datuak:

Izena: _____ Abizenak: _____

Helbidea: _____ Herria: _____ Urteak: _____

Telefono zb.: _____

Oharra: Derrigorrezkoa da maiatzaren 15a baino lehen Udal Liburutegian (Enparan dorretxean) edo igerilekuan dauden gutunontzietan uztea lehiaketako orri hau.



Udan haur sahararrak etxean hartzeko deialdia egin dute

Oporrak Bakean programan parte hartzeko maiatzaren 14a baino lehen eman behar da izena



Haurrak Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuan.

azken urteetako ohiturari jarraituz, Oporrak Bakean programa martxan jarri dute berriro, eta honela, udan haur sahararrak etxean hartu nahi dituzten herritarren bila hasi dira arduradunak. Proiektu horren helburu nagusia

umeak Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan udako tenperatura gogorretatik babestea da, "eta gainera, haurrek hain beharrezkoa duten sendagileen behaketa sakona egiteko aukera izaten dute", adierazi dute antolatzaileek.

Programaren baitan hartzen diren umeak 8 eta 12 urte bitartekoak dira, eta uztaila eta abuztuko hilabeteak igarotzen dituzte harrera familietan. Bi hilabete egonaldi hori luzatzeko aukera bakarra haurrak osasun arazoak izatea da. Kasu horretan, arazoa konpondu arte luzatzen da egonaldia. Hala ere, arduradunek argi utzi nahi dute programaren xedea ez dela adopzioa, "haur guzti horiek familia bat baitute".

Era berean, familia horiek bete beharreko baldintzak bi dira; batetik, haurrari osasun errebisio sakona egitea eta bestetik, dentistarengana eramatea. Modu horretan, Tindufeko saharar errefuxiatuen kanpamentuetako ume bat hartu nahi duten familiek maiatzaren 14a baino lehen deitu beharko dute 697244058 telefono zenbakira.

ELKARRIZKETA

Marian Garmendia



Noiz eta zergatik hasi zinen Oporrak Bakean proiektuan parte hartzen?

Esperientzia bezala probatu nahi genuen, umerik ez baitugu. Orain bi urte egunkarian ikusi genuen familiak behar zituztela Saharako haurrak ekartzeko, deitu egin genuen baina dagoeneko denak hartuta zeuden. laz, ordea, berriro animatu ginen eta ume bat izan genuen gurekin, Fatimetu izeneko neska.

Nolakoa izan zen esperientzia?

Ona. Hasieran pixka bat gogorra izan zen; izan ere, hango haurrak edo neskak ez daude gizonekin egotera ohituta, eta lehen egunetan ez zuten senarrarekin egon nahi. Egunak igarotzen joan ziren heinean, ordea, hobetzen

joan zen egoera eta oso gustura egoten zen berarekin ere. Hizkuntza aldeetik ere zaila da, lehenengo egunetan gure umeak telefonoa hartu eta Saharara deitzen zuen esan nahi zuena hango batek itzul zezan.

Zer eskaintzen zaio haurrari bi hilabetez zehar?

Dena. Batik bat hemengo ohitura, ezer ez dakitelako. Etortzen dira eta ez dakite zer den sua, hozkailua...

Eta haurrak familiari?

Afektua eta maitasuna. Gainera, ikasi egiten duzu, adopzioaren paperekin gabiltza eta esperientzia bat nahi genuen aurretik, haurrekin nola moldatzen garen jakiteko.

Elkarbizitzarako oinarrizko arauak betetzea eskatzen du Udalak

Zarata, hondakinak eta txakurren gaineko araudiak gogoratu nahi dituzte agintariek

herri bat zibilizatu izateko komunitate osoak onartu eta betetzen dituen arauak behar ditu. Azpeitiko herria ez da salbuespena, baina badaude hobetu daitezkeen zenbait esparru; zaratarena, hondakinena eta txakurren zaintzarena, hain zuzen ere.

Udalak kexa ugari jaso ditu azken aldian hiru gai hauek kasu batzuetan ez direla betetzen adieraziz, eta, herritargoa kon-

tzientziatzeko helburuarekin, elkarbizitza are eramangarriagoa egingo duen ekimen jabeazte eta hezigarria jarri nahi du abian.

Honela, gai bakoitzeko Udal-agintarauak esaten duena gogorazi eta ez betetzearen kasuan, arau-haustaleek jaso ditzaketan isunak ezagutaraziko dira; izan ere, aurrerantzean, arauak ondo eta egoki betetzen direla ikuskatuko dute

ordezkariek: "triste da Udalak honelako neurriak hartu beharra izatea baina batzuetan betebeharrak ez direla betetzen ikusi da, eta horregatik jarriko da martxan. Gainera, herria beti txukun mantendu nahi izan dugu. Bata bestearekiko egin beharreko gutxieneoak direla uste dugu eta bakoitzak bere aldetik jarritz gero, oso erraza da", esan du Baserri eta Zerbitzu Orokorretako zinegotzi den Iñaki Etxezarretak.

Azpeitiko eta Azkoitiko udalek txakur-araudia zorrotz betearaziko dute maiatzaren 1etik aurrera



Txakur-kakak botatzeko ontzi berezi bat.

azken aldian Azpeitiko eta Azkoitiko udaletan txakur-kakak ez jasotzeagatik iritsi diren kexen aurrean kezkatuta, bi herrietako ordezkariak bat egin dute kale eta berdeguneak txukun eta garbi mantentzeko asmoz.

Izan ere, herritarrek behin eta berriz salatzen dituzte Zelai-Luze, Enparan Dorretxea atzea, Loiola, German Alberdi pasealekua edota Perez Arregi plaza bezalako guneetan txakur-kakak ez direla jasotzen, horrek eragiten duen arazoarekin, toki horietan jolasten duten haur txikiekin batez ere.

Horregatik, txakur-jabeak kontzientziatzeko, ahalegin berri bat egin nahi dute bi udalerrietako ordezkariak eta Azpeitiaren kasuan, 2006tik indarrean dagoen Abereak Eduki eta Babesteko Udal Agintaraua zorrotz betearaziko dutela maiatzaren 1etik aurrera adierazi dute arduradunek.

Udaltzainak izango dira txakur-kakak jaso eta animaliak lotuta eramateko beharrak betearazteaz arduratuko direnak, eta txakurren jabeek Udaltzaingoan (Plaza Txikia, z/g) eskuratu ahal izango dituzte kakak jasotzeko poltsa bereziak,

guztiz doan gainera. Txakur-gorotzak edukiontzietara bota beharko dira, betiko ontziez gain, txakurrentzat egokitutako ontziak aurkitu daitezke herriko gune desberdinetan, besteak beste, Loiolako lorategian, epaitegi atzean, Zelai-Luzen edota liburutegi atzean.

"Kakak ez jasotzea eta txakurrak lotuta ez eramatea zigortu egingo du Udaltzaingoa"

Txakurrek kalean egiten dituzten kakak ez jasotzea arau-hauste arintzat hartzen du araudiak, eta isuna 600 euro artekoa izan daiteke. Txakurra lotuta ez eramatea, berriz, arau-hauste larritzat jotzen da ordenantzan, eta honelako kasu batetako isuna 300 eta 1.500 euro artekoa izan daiteke txakurren jabearentzat.

Herria txukun mantentzeko, zaborra dagokion ontzietan utzi behar da



Sailkako edukiontzia.

azpeitiko Udalaren helburua da kale eta txokoak garbi mantentzea, eta horregatik, ahalegin berezia egiten du edukiontzia beharrezkoak diren lekuetan jarri eta zaborra jasotzeko. Baina herritarren kolaborazioa ere ezinbestekotzat jotzen da, zabor bakoitza dagokion ontziaren barruan sartuz.

Herriko auzo guztietan aurkitu daitezke kolore desberdinetako ontziak; berdeak beirarentzat, urdinak paperarentzat, horiak plastikoarentzat, laranja olioarentzat, marroiak organikoarentzat, grisak gainontzeko zaborrentzat, zuriak arroparentzat eta hori txikiak pilentzat.

Hauetz gain, traste zaharrak, altzariak, koltxoak, hozkailuak, garbigailuak, telebistak, musika aparatuak, informatika ekipoak... jasotzeko zerbitzu berezia dago.

“Araudia ez betetzeak 60 eta 30.000 euro bitarteko isuna izan daiteke”

Ordutegiari dagokionez, zaborra edozein ordutan utzi daiteke, beira izan ezik, kristala 8:00etatik 22:00etara bitartean bota behar da. Araudiak ezarritako beharrak ez betez gero, isunak 60 eta 30.000 euro bitartekoak izan daitezke.

Auto, motor eta tabernetako zarata maila kontrolpean mantentzeaz arduratuko da Udala




Tabernako bozgoragailua.

elkarbizitzako beste oinarria zarata da. Zenbait kasutan autoetako, motoetako eta tabernetako musikak sortzen duten zaratek, legeak

araututako maila gainditzen dute eta horren aurrean neurriak hartuko ditu aurrerantzean Azpeitiko Udalak.

Izan ere, zaratek ondorio eta lesio atzeraezinak sor ditzakete; entzumena galtzea, loaren alterazioa, nekea, estresa, akidura, agresibitatea areagotzea, arazo psikikoak, kontzentratzeko gaitasuna gutxitzea...



Motor baten ihes-hodia.

Osasunaren Munduko Erakundearen arabera, bizitegi-guneetan gehiegizko zarata mailak ez ditu egunez 65 dezibelio eta gauetz 55 dezibelio gainditu behar. Honela, Azpeitiko auto eta motorrek egiten dituzten arau-hausteko isunak 61 eurotik 91 euro bitartekoak izan daitezke. Tabernetako zarata mailaren kasuan, berriz, araudia ez betez gero, tabernariak 300 euroko isuna jaso eta lizentzia gal dezake.

“Gehiegikeriarik eta neurrigabekeriak ez egotea da helburua”

Hala ere, udaletxeko arduradunek garbi utzi nahi dute kontrola eramatearen helburua ez dela herritarrei isunak jartzea, gehiegikeriarik eta neurrigabekeriak ez egotea eta legedia betetzea baizik.

Euskara da kaleko hizkuntza



Ikerketa batek adierazi duenez, azpeitiarren %86ak erabiltzen du

azpeitiarren %86,1ek kalean euskaraz hitz egiten du. Hori erakutsi du behintzat Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketa batek. Azterketa 2009 urteko ekainean jarri zen abian eta emaitzak martxoan eman zituzten jakitera Euskara Batzordeburu den Ana Mendizabalek eta Soziolinguistika Klusterreko Pablo Suberbiolak. Arduradunen esanetan, jasotako emaitzak jakineko gauzak dira eta Azpeitiko euskaldungoaren komunitateak trinkotze maila handia duela erakutsi dute; “Orokorrean pozteko datua da. Azpeitiko kaleetan euskara dela hizkuntza nagusia, alde handiarekin, eta azpeitiarrek euskararen aldeko hautua egiten dutela adierazten du”, esan zuen Mendizabalek. Suberbiolak adierazi duenez, “arau soziala euskaraz egitekoaren aldekoa dela agertzen du neurketak, oso nabarmen”. Adin taldekako emaitzak ikusita, 2 eta 14 urte arteko haurrek dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%95). Horren ondoren, 15 eta 24 urte arteko gazteak agertzen dira (%90,8ak hitz egiten du euskaraz); 25 eta 64 urte arteko helduak (%80,6) eta azkenik, adinekoak (%75,3).

Kultur Mahaiak urteko aurrekontua osatu du



2010ean San Agustin kultur-gune berria zabaltzea espero du

Kultur Mahaiak 2010ko plana osatua du dagoeneko eta urteko asmoak burutzeko, 17.774 euroko gastua eta 18.000 euroko diru sarrera aurreikusi du. Mahaiko Talde Eragileak EAJ, Ezker Abertzalea, EA eta Aralar taldeekin bilerak egin ditu urteko plana eta diru laguntza eskaera aurkezteko, eta iazko laguntza berdina izango duela uste du: “Iaz hamabi mila eurokoa izan zen eta urte honetarako kopuru bera”, aurreratu dute. Modu honetan, herriko kultur egutegi orekatua lortzea, lapikue.net webgune berria aberastea, eskuko agenda sortzea eta San Agustin kultur-gunea zabaltzea eta honen funtzionamendua zehaztea direla urteko ardatz nagusiak aurreratu du Kultur Mahaiak. San Agustin guneari dagokionez, “obrak bukatuta daude eta ekipamendua jartzea besterik ez da falta, baina horretarako Espainiako Gobernuaren azken balekoa behar da, honek finantzatu baitu obra osoa”, agertu dute. Bestalde, Mahaiko elkarterako bazkide kanpaina ere abiatua dute, hasiera batetan, taldeen artean bakarrak, eta Talde Eragileak bi kide berri izango ditu: Zubi-Zarreko Musika Taldea eta Ikasberri Azpeitiko Ikastola-Kultura. Hurrengo batzarra uztailan egingo du Kultur Mahaiak.

Aldizkariak mailegatzzen hasi da liburutegia



83 aldizkari gai ezberdinetakoak eman daitezke etxera astebetez

Udal Liburutegiak hamaika zerbitzu eskaintzen ditu, eta apiriletik aurrera aukera bat gehiago emago zaie azpeitiarrei, izan ere, aldizkarien mailegua onartu zuen Udalak. Modu honetan, ikus-entzunezkoekin egiten den bezala, herritarrek astebetez aldizkariak etxera eramateko aukera dute eta mailegua astebetez luzatu daiteke. Liburutegiak 83 aldizkari desberdin jasotzen ditu, gai ezberdinetakoak, besteak beste, *Aizu*, *Argia*, *Euskal Herria*, *Gaztetxulo*, *Geo*, *PC*, *Pirineos*, *Uztaria* eta *Xirika*. Era berean, udaberriarekin batera, liburu berriak iritsi dira liburutegiko apaletara. Bestalde, Liburuaren Nazioarteko Eguna dela-eta, liburutegiak ipuin-kontakteta saioa antolatu du apirilaren 23rako. Hilaren 12an bezala, Miriam Mendoza izango da haurrei ipuina kontatzeko arduraduna. Saioa 18:00etan hasiko da eta sei urtetik gorako haur eta gazteei zuzenduta egongo da.

Loiola Berrikuntza Fundazioa aurkeztu dute



Azpeitia eta Azkoitiko enpresen lehiakortasuna hobetzea du helburutzat

Loiola Berrikuntza Fundazioa aurkeztu zuten martxoaren 25ean. Urola Erdiko eskualdean berrikuntzaren kultura bultzatu eta gidatzeko helburu nagusia izango du Iraurgi Lantzen eta Urola Erdiko Industrialdea baltzuek bultzatu duten proiektuak. Fundazioak babesle talde bat du, patronatua, eta Iraurgi Lantzen eta Urola Erdiko Industrialdea baltzu publikoek eta Antzibar, Biele, Corrugados, Glual, Sarralle, Ibarria, Juaristi eta Sammic enpresek osatzen dute. Era berean, Deustu Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Cidemco Fundazioa, XVIII. Mendeko Ikerketarako Xabier Maria Munibe Nazioarteko Institutua eta Innobasque laguntzaile moduan ibiliko dira. Hala ere, Fundazioaren atea gainontzeko enpresa guztientzat irekita daudela nabarmendu dute arduradunek. "Eskualdearen posizionamendu lehiakorra hobetzea xedetzat duen ekimen publiko-pribatu bat da; berrikuntza, pertsonen garapena eta talentuaren erretentzioaren bidez, biztanleen ongizatea lortzen lagunduko duena, eta helburu hori lortzera bideratuko ditu bere ahaleginak, bere baliabideak, eta bere baitan lanean arituko diren pertsonen ezagupen eta konpromisoak", agertu du Fundazioko presidente den Julian Eizmendik. Sozietatearen egoitza Azkoitiko Intsausti jauregian dago, baina uda aurretik Oinartxo industrialdera igarotzea aurreikusten da. Gainera, etorkizuneko Azpeitiko Larrin poligonoan espazio fisikoa izatea espero dute.

Azpeitiko historia haurrei egokituta



Udalak 8 ipuinez osatutako bilduma aurkeztuko du apirilaren 17an

herri-Gutunaren 700. urteurrena aprobetxatuz, Azpeitiko historia agertu nahi die Udalak herritarrei eta horretarako ekitaldi desberdinak antolatzen ari da urtean zehar. Bereziki haurrei zuzendutako ekimen bat falta zen eta hau, ipuin bilduma bidez iritsiko da.

Olatz Aguado, Alaitz Olaizola, Markel Mendizabal eta EREGI, Euskara eta Komunikazio enpresak elkarlanean egindako lana, *Azpeitiko kontuak eta komeriak*, apirilaren 17an aurkeztuko da. Bilduma 8 liburuz osatuta dago eta euskara hutsean argitaratuko da. Liburuxka guztiak kaxa

batean jasota etorriko dira, 1.000 aleko tirada izango du eta Iratzar eta Belaetxe dendetan egongo da salgai 10 eurotan. Egunean bertan, udaletxeko arkupean ere izango dira salgai. Ipuinetako protagonistei dagokienez, berriz, buruhandiak aukeratu dira.



*Infernuko Ezkitoa
Gizon ausarta eta
barregarria da ile-gorria.*



*Kixote
Zeharo harrokoa da, baina,
era berean, oso hoidarra.*



*Santxo
Beti dago laguntzeko prest,
baina inozente xamarra da.*



*Amona
Emakume zentzuduna eta
langilea duqui Amona.*

Azpeitiko buruhandiak

tradizio handikoak dira buruhandiak; San Inazio festetan erraldoi eta buruhandien kalejira aspaldi egiten den ekitaldia da, 1912tik bai behintzat. Gaur egungo erraldoi eta buruhandiak 1972an egin bazituzten ere, aurrez herrian zeuden erraldioen itxura kontuan hartuta egin ziren. Tradizio horretatik, gaur egun, Umeen Euskal Festa egunean, egiten den erraldioen lehiaketa sortu zen.

Arratsaldean festa

goizeko aurkezpenaren ondoren, umeak izango dira arratsaldeko festako protagonista nagusiak. 18:00etatik hasita buruhandiak ezagutzeko aukera izango dute; hauekin argazkiak atera ahal izango dituzte eta ludoteketako begiraleen laguntzarekin maskaren tailerra ere egingo dute Plaza Nagusian. Azkenik, Udal Kultur sailak txokolatada eskainiko du.

Herriko ondare historikoa ezagutzeko aukera egongo da maiatzean

Eraikin esanguratsuenen historia agertuko da larunbatero eskainiko diren bisita gidatuetan



Soledadeko kapera.

egunero ikusten ditugu, baina askotan atzean gordetzen duten historia ezezaguna dugu. Horregatik, herrian dagoen ondare historiko eta artistikoa ezagutzeko asmoz, bisita gidatuak antolatu ditu Udalak.

Maiatzeko larunbatetan ordu eta erdiko iraupena izango duten bisitak egin ahal izango dira, euskaraz eta gazteleraz. Ekimen honetan parte hartu nahi duten pertsona guztiak 11:00etako edo 12:30eko saioen artean aukeratu dezakete eta udaletxetik hasi eta Azpeitiko eraikin esanguratsuenak ikusi. Besteak beste, Soreasuko Sebastian Donearen parrokia, Enparan edota Antxieta eraikinetan ezkutatzen diren istorioak eta historia emango dira jakitera.

Astean zehar, berriz, ikastetxeentzako tartea izango da, eta haur eta gazteek egingo dituzte bisita gidatu hauek. Udal ordezkariak herritarrak gonbidatu nahi dituzte bisita gidatu hauetan parte hartzeko: "Aukera oso ona da egunero ikusten ditugun altxorren berri izateko", agertu dute.

Era berean, Herri-Gutunaren 700. urteurreneko ekitaldiekin jarraituz, bi hitzaldi izango dira apirilean. Lehenbizikoa, *Benetan estatu-kolpea. Vicente Enparan azpeitiarra eta Latinoamerikako lurraldeen independentzien hastapenak* hilaren 21erako antolatu da eta Manuel Lucena ikertzailea, Harvard unibertsitateko irakaslea eta Amerikako historian doktorea izango da hizlaria. Hitzaldia 19:30ean hasiko da Sindikatu Zaharrearantz eta gazteleraz izango da. Apirilaren 28an, aldiz, Pako Garmendiak Azpeitiko zenbait kontakizunen saioa eskainiko du leku eta ordu berdinean.

Hilabete honetako ekitaldiekin amaitzeko, apirilaren 16tik aurrera herriko argazki zaharren erakusketa hartuko du Betharram aretoak. Astelehenetik ostiralera bitartean 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik erakusketa eta asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara.

Martxoaren 30ean Udalbatza osoak egindako bilkuran hartu ziren erabakiak honakoak izan ziren:

1.- 2009ko abenduaren 30ean, 2010eko otsailaren 4ean eta martxoaren 4ean egindako bilkuren aktak onartzea.

2.- Arretxe baserri inguruko zenbait lursail Udalari lagatzeko proposamena onartzea.

3.- Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián -KUTXA- kontseilari bat izendatzea.

4.- Obra, eraikuntza eta instalazioen zergaren hobariak:

- Arana Goikoa 11ko eraikuntzan izogailua aldatzea.

- Euskal Herria 3ko eraikuntzan izogailua aldatzea.

- Euskal Herria 1eko eraikuntzan izogailua aldatzea.

- Garmendi 16ko eraikuntzan aldapa bat egitea.

- Euskal Herria 6ko eraikuntzan izogailua aldatzea.

- Etxean ezintasuna duten bi pertsonentzat komunak egokitzea.

6.- 2009. ekitaldirako aurrekontuaren likidazioak onartu direnaren berri ematea.

7.- 2010. aurrekontu prorrogatuan kreditu gehikuntzaren bidez 1. kreditu aldaketaren berri ematea.

agendaapirila

APIRILA	1	2	3	4		
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		



16, ostirala
700 URTEURRENA
Erakusketa: Herriko Argazki Zaharrak
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

ORKATZ KULTUR ELKARTEAK ANTOLATURIK:
Kontzertua
22:00etan
Lekua: Orkatz Kultur Elkartean

17, larunbata
SEXUALITATE TAILERRA
10:00etan
Lekua: Sindikatu Zaharra
Euskaraz

700 URTEURRENA
"Azpeitiko kontuak eta komeriak" ipuin bildumaren aurkezpena, 12:00etan
Udal Aretu Nagusian.
18:00etatik atzera Plaza Nagusian Azpeitiko Gaztetxo guztientzat jaialdia: Buruhaundien

aurkezpena, argazkiak, tailerrak eta txokolatada
Erakusketa: Herriko Argazki Zaharrak
12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

DVD EMANALDIA
17:00etan, *Una Mamá en Apuros*
22:00etan, *Amerrika*
Lekua: Betharram Aretoa

ASTEURU MUSIKALA
IZARRAITZ TXISTULARI TALDEA
19:30ean
Lekua: herriko kaleetan zehar

18, igandea
Erakusketa: Herriko Argazki Zaharrak
12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

DVD EMANALDIA
17:00etan, *Una Mamá en Apuros*
22:00etan, *Amerrika*
Lekua: Betharram Aretoa

19tik 23ra
Erakusketa: Herriko Argazki Zaharrak
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

21, asteazkena
Erakusketa: Herriko Argazki Zaharrak
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa
700 URTEMUGAKO HITZALDIA
Enparandarrak
19:30etan
Hizlaria: Manuel Lucena
Lekua: Enparan Dorretxea

23, ostirala
Erakusketa: Herriko Argazki Zaharrak
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

ERNIARRAITZ BERTSOZALE ELKARTEA
Berto Jaialdia "Presoen eskubideen alde"
22:30etan
Lekua: Izarraitz Pilotalekua

ZINE KLUBA
Sin nombre
21:30etan
Lekua: Betharram Aretoa

24, larunbata
SEXUALITATE TAILERRA
10:00etan
Lekua: Sindikatu Zaharra
Euskaraz

Erakusketa: Herriko Argazki Zaharrak
12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

DVD EMANALDIA
17:00etan, *Vicky el Vikingo*
22:00etan, *La Cinta Blanca*
Lekua: Betharram Aretoa

ASTEURU MUSIKALA
BERGARA-AZPEITIA elkartrukea
Organo ikasleen kontzertua
18:30etan Esklabetako elizan

25, igandea
Erakusketa: Herriko Argazki Zaharrak
12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

DVD EMANALDIA
17:00etan, *Vicky el Vikingo*
22:00etan, *La Cinta Blanca*
Lekua: Betharram Aretoa

26tik 30era
Erakusketa: Herriko Argazki Zaharrak
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Apirilaren 1, 2, 3, 4, 5, 15, 22 eta 28an.

ARANBURU. Enparantza nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Apirilaren 6, 10, 11, 14, 21, 27 eta 30ean.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Apirilaren 7, 12, 17, 18, 23 eta 29an.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Apirilaren 8, 19, 24 eta 25ean.

JACOME. Gamendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Apirilaren 9, 13, 16, 20 eta 26an.

